


# Hitzatzea

## Haur-literaturako gutxiengoak indartsu Santiagon

Izaskun Jauregi



600 biltzarkideen artean, 9 Galtzagorriko kideak ziren. Beraz, euskarazko haur- eta gazte literaturaren ordezkaritza askotarikoa izan zen: Asun Agiriano, Arrasateko haur-liburutegiko arduradun eta Galtzagorriko lehendakaria; Belen Lucas ilustratzailea; Xabier Etxaniz, unibertsitateko irakaslea; Juan Kruz Igerabide idazlea; Mariasun Landa idazlea; Xabier Olarra itzultzaile eta editorea; Marijose Olaziregi unibertsitateko irakaslea; Ruben Ruiz idazlea eta Itziar Zubizarreta idazle, irakasle eta ipuin-kontalaria.

OEPLIren (Organización Española para el Libro Infantil y Juvenil) ardura zen, IBBYko Espainiako adarra den neurrian, biltzar hura antolatzea. Baina Galtzagorri ere antolatzaile-lanetan aritu da, IBBYren euskal adarra den heinean.

### Entzun eta ikasitakoak

Egunero goizez bi hitzaldiz gozatu ahal izan genuen. Eta arratsaldez, mahai-inguru, tailer eta bestelako ekitaldi eta ikuskizunez. Horrelako biltzarretan gertatu ohi denez, antolatutako ekitaldi zenbait interesgarriagoak ziren beste zenbait baino. Esaterako, guztiok utzi gintuen aho-zabalik Emilia Ferreiro psikolinguista argentinarrak emandako hitzaldiak. Haur-pentsaeraren ikerlari sutsu honek sehaskako hizkuntza nabarmendu zuen, ama-hizkuntza terminoa alboratuz eta, erakutsi, oraintxe hasiak gaudela sehaskako eleaniztasunari buruzko ikerketa soziolinguistikoa jorratzen.

Sehaska-hizkuntzan haurrak alfabetatzeak munduko hainbat lekutan dituen zailtasunei buruz mintzatu zitzaigun: nola erakutsi sehaska-hizkuntza idazten haur bati, irakasleek ere ez badakite testu bat eraikitzen hizkuntza horretan? Hortik salto egin zuen eskolara, eta nola eskolak historikoki nahastu dituen berdintasuna eta homogeneizazioa. Euskara ere aipatu zuen. Hizkuntzek, jazarpena jasanda ere, biziraun ohi dutela esan zuenean adibide gisa jarri baitzuen. Eskolak dibertsitatea abantaila pedagogiko bihurtu beharko lukeela zioen Ferreirok. Plazer hutsa izan zen hitzaldia entzutea.


Horrez gain, biltzarreko egunetan entzundako hitzaldietan munduko hainbat hizkuntzako haur-literaturen egoeren berri jaso genuen. Besteak

beste, Victor Montejo antropologiako irakasle maia, adibidez, maia-hizkuntzan haur-literatura plazaratzea lortzearen prozesuaz mintzatu zitzaigun. Guatemalatik alde egin behar izan zuen Montejok indigenen jazarpen garaian. Maia-hizkuntza eskolan erabiltzea debekatuta zegoen orduan.

Gita Wolf-ek, aldiz, Tara books argitaletxeak Indian egindako lana kontatu zigun. Artista tribal tradizionalak euren etxeko zoru eta paretak apaintzeko erabiltzen dituzten arte-teknikak erabiliz ari da Tara argitaletxea haurrentzako album zoragarriak plazaratzen. Hitzaldiaren baitan artista tribal horien hitzak eta irudiak biltzen zituen dokumentala ikusi ahal izan genuen.

Teresa Colomer, aldiz, haur-literaturak literaturan orokorrean jasan behar izan duen gutxiengo gisako tratamenduaz mintzatu zitzaigun. Afganistango haurrei ere eskaini zien tartea biltzarrek. Mohammad Yousef-ek azaldu zuen zein proiektu garatzen ari diren bertan haurrei liburuak gerturatzeko.

Mahai-inguruen artean, bi aipatuko ditugu hemen. Baina esan gabe doa ugari izan zirela eta asko oso interesgarriak. Horietako bat Irakurtzeko Zaletasunaren Sustapenerako eta Ikerketarako Zentroak izan zen. Bertan, Carmen Barvo Kolonbiako Fundalecturako lehendakariak martxan dituzten egitasmoak azaldu zituen; Jose Antonio Gomes-ek *immigranteen gutxiengoak eta irakurtzeko zaletasunaren sustapena Portugalen* gaia landu zuen;





Gemma Lluch-ek CERLALC sarean azken lau urteetan burutzen ari diren ikerketa baten berri eman zuen. Bertan, batez ere, Hego Amerikan burutzen ari diren irakurketa eta sustapenerako zenbait proiekturen ildo nagusiak eta ondorioak ikertzen dabiltza. Michelle Petit, azkenik, Hego Amerikan burututako hainbat tailerrez mintzatu zen. Besteak beste, kulturarekin eta irakurketarekin zerikusirik ez duten giro marjinaletako pertsonak (delinkuenteak, drogoenpekoatasunen bat dutenak, eta abar) nola erakarri dituzten irakurketara tailer horien bidez azaldu zuen.

Beste mahai-inguru interesgarri batek honako izenburu hau zuen: *Neskatoak: gehiengoa edo gutxiengoa?* Mariasun Landa-k, Victoria Fernandez-ek eta Devika Rangachari-k parte hartu zuten bertan. Entzundako iritzi interesgarrien artean, bi aipatuko ditugu hemen: Victoria Fernandezek zioen haur-literaturan emakumezko eredu baten sorreraren hasieran gaudela, baina ez omen dago orekarik ezta naturaltasunik ere emakumezko pertsonaien sorrera horretan. Izan ere, badirudi neskek liburu baten protagonista izatea merezi izateko mutilen ezaugarriak bete behar dituztela, hala nola: indar fisikoa, inteligentzia, anbizioa... eta hori guztia emakumezkoie egozten zaizkien berezko ezaugarriek uko egin gabe: sentsibiltatea, ontasuna eta abar. Beraz, «amatxo efikaz eta ulergarri batzuk dira neskato protagonista horiek».

Mariasun Landak, aldiz, zera zioen: arazoa gizartean eta haur-literaturan dagoela. Literatura egiteko garaian, idazlearen ikuspegitik alegia, emakumea eta feminista izanda ere, hori alde batera utzi behar dela. Ezin dela askatasunik gabe idatzi, «umeak ez direlako tontoak eta badakite noiz idazle bat ez den kikiltzen edo beldurtzen. Umeek hori nabaritu egiten dute».

### Sari-banaketak eta beste

Kongresuak iraun zuen egunetan, ia-ia egunero goizetik gauerako programa itxi bat genuen. Adibidez, hilaren 9an, IBBYren 2010eko Ohorezko Zerrendako diplomaren banaketa gauzatu zen. Bertan ziren Ohorezko Zerrendan aurten agertzen diren Ruben Ruiz idazlea (*Anekdotak* liburuarengatik) eta Xabier Olarra itzultzailea (*Hobbita* lanarengatik). Beraz, Patricia Aldana IBBYko lehendakariaren eskutik jaso ahal izan zituzten biek ala biek diploma bana.

Ostiralean Irakurketaren Sustapenerako 2010eko IBBY-Asahi sariak banatu ziren. Aurtengo irabazleak Ghanako Osu Children's Library Fund eta Kolonbiako Taller de Letras Jordi Sierra i Fabra Fundazioak izan ziren. Jordi Sierra i Fabra euskaraz, katalanez eta galegoz mintzatu zen eskerrak ematerako garaian. Ghanako ordezkariak ingelesez hitz egin zuen, baina kantatzen ari zela zirudien.

Larunbat gauean, berriz, Hans Christian Andersen sarien irabazleen hitzaldi ederrak entzun ahal izan genituen. Erresuma Batu-ko David Almond idazlea eta Alemaniako Jutta Bauer ilustratzailea ziren irabazleak eta euren hitz eta irudiekin gozatu zuten entzule guztiek. Ondoren, zortea izan zuen euskal ordezkariak: izan ere, juxtu lo egiten genuen hotelean bertan, kafetegian (zehatz esanda, erre zitekeen hoteleko leku bakarrean) egon ginen eurekin mahaia konpartitzen.

### Erakusketak

Azkenik, aipatzea falta zaigu egun horietan guztietan, biltzarra lekutu den jauregian bertan, erakusketa interesgarriez gozatu ahal izan genuela. Bata, «100dehoy» izeneko, OEPLik berak sortutakoa zen, Kultura Ministerioaren laguntzarekin. Bertan, Espainiako estatuko hizkuntzaetako haur-literaturetako idazle eta ilustratzaileen lana ikusgai izan zen. Euskarazko sei idazleren lanak eta biografiak eta zortzi euskal ilustratzaileen lanak eta biografiak ere bertan ziren.

Bestalde, IBBYren Ohorezko Zerrendako hautagaien lanak ere ikusgai zeuden jauregian, baita Andersen sarietara aurkeztutako hautagaien lanak ere. Galiziako haur-literaturako erakusketa bat ere paratu zuen Galix Elkarteak. Aspertzeko denbora gutxi izan genuen, beraz. Baina entzun eta ikusitakoetatik asko ikasi genuen: gutxiengoengandik jaso dugu indarra lan egiten jarraitzeko.

Nahi duenak hitzaldiak eta komunikazioak eskuragarri ditu <http://www.ibbycompostela2010.org> web-orrian.


*Izaskun Jauregi la secretaria técnica de la Asociación Galtzagorri acudió a la cita del congreso organizado por el IBBY en Santiago de Compostela, en Galicia.*

*Ella ha realizado un artículo en el que se recoge lo más llamativo que dejó el congreso.*

*Así, destaca entre las conferencias y mesas redondas las de Emilia Ferreiro, Victor Montejo, Gita Wolf, Teresa Colomer, Mohammad Yousef, Carmen Barvo, Jose Antonio Gomes, Gemma Lluch, Mariasun Landa...*

*Hace mención a los diferentes premios que se otorgaron durante el congreso: lista de honor del IBBY, los premios IBBY-Asahi y las conferencias de los ganadores de los premios Hans Christian Andersen.*

*Por último, hace referencia a las distintas exposiciones que los visitantes tuvieron el placer de disfrutar: la exposición que realizó la Asociación Galix sobre la literatura infantil gallega, la exposición sobre la lista de honor de IBBY, y por último, la exposición «100 de hoy».*



*Izaskun Jauregui, technical secretary of the Galtzagorri Association, attended the conference organised by the IBBY in Santiago de Compostela, Galicia.*

*She has produced a paper that covers the most outstanding aspects that came out of the conference.*

*It draws specific attention to the following lectures and roundtable discussions by Emilia Ferreiro, Victor Montejo, Gita Wolf, Teresa Colomer, Mohammad Yousef, Carmen Barvo, Jose Antonio Gomes, Gemma Lluch, and Mariasun Landa.*

*It refers to the various prizes awarded during the conference: the IBBY list of honour, the IBBY-Asahi awards, and the lectures delivered by the winners of the Hans Christian Andersen prizes.*

*Finally, she refers to the various exhibitions that the visitors had the chance to enjoy: the exhibition put on by the Galix Association on Galician literature for children, the exhibition on the IBBY list of honour, and finally the exhibition «100 de hoy».*

Translated by Sarah J. Turtle